

---

**Bilera mota:** Ezohiko Udal Osoko Bilkura.

**Data:** 2014-10-3 (ostirala)

**Ordua:** arratsaldeko 17:30etan.

**Lekua:** Udaletxeko Areto Nagusia

**Erreferentzia:** E -14-05

---

Honen bitartez eta alkate jaunaren aginduz, aipaturiko ordu eta lekuan egingo den Ezohiko Udal Osoko Bilkurarako deialdia luzatzen dizut.

Ezkio-Itsaso, 2014ko urriaren 1a

Idazkari-kontuhartzailea

---

**AZTERGAI**

**ZERRENDA**

- 1.- Azken sesioko akta onartzea.
- 2.- Alkatearen ebazpenen berri ematea.
- 3.- Itsasoko Ostatuko erabilera kontratua esleitzeko Baldintza Administratibo Zehatzen Plegua onartzeko proposamena.
- 4.- Ezkioko Ostatuaren kudeatzaileen eskaerak eta Udalaren jokaera izan behar duenaren finkapena.
- 5.- Galdera erreguak.

.....//.....

***1-E-14-05: EZOHICO UDAL OSOKO BILKURA***

## **2014KO URRIAREN 3KO EZOHIKO UDAL OSOKO BILKURA**

Ezkio-Itsason, bi mila hamalauko urriaren hiruan.

Egun honetako arratsaldeko 17:30ak direnean, Udaletxeko Areto Nagusian Udal Plenoa biltzen da, Garikoitz Aiesta Etxaniz alkatearen lehendakaritzapean, lehenengo deialdian eta alde zurretik eta behar den eran Udalkide guztiei igorri zaien eguneko Aztergai Zerrendaren arabera.

Batzarreratzen dira honako Udalkide hauek:

- Mikel Igartua Anduaga (EIK).
- Joseba Etxezarreta Estala (EIK).
- Eneko Zabaleta Lasa (EIK).
- Ruth Idiakez Alberdi (EIK).
- Ander Unzurrunzaga Idiakez (EIK).
- Lourdes Lasa Arbilla (EIK).

Ez dira agertzen, baina beren ezinetorria desenkusatzuz: inor ez.

Ez dira agertzen, baina beren ezinetorria ez dute desenkusatzuz:

- Inor ez.

Idazkari, Udaleko idazkari-kontuhartzaileak egiten du:

- Gotzon Goikoetxea Cestona.

.....//.....

**2-E-14-05: EZOHIKO UDAL OSOKO BILKURA**

Segidan eta Presidentearen baimenez, nik, idazkari honek, Batzarra egin daitekeela adierazten dut, zeren Udalari dagozkion eta osatzen duten Udalkide gehienak bertaratu baitira, horrela apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46-2 artikuluan eta azaroak 28ko 2.568/1.986 Erret Dekretuz onarturiko Toki Erakundeen Antolakuntza, Iharduera eta Legezko Jaurbidearen Erregelamenduaren 90.1 artikuluan xedatzen denarekin bat etorritz.

.....//.....

**3-E-14-05: EZOHIKO UDAL OSOKO BILKURA**

**LEHEN PUNTUA:  
AZKEN SESIOKO AKTA ONARTZEA.**

Alkateak aditzera ematen du 2014-9-18ko Ez-Ohiko Saioko akta onartu behar dela.

Aho batez onartzen da.

**BIGARREN PUNTUA:  
ALKATEAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.**

Udal Entitateen funtzionamendu eta antolaketa arautzen duen 2568/1986 Erregalamenduko 42. artikulua xedatutakoaren arabera, alkate jaunak azken Udal Osoko Bilkuratik aurrera eman dituen ebazpenen berri ematen dio Udal Osoko Bilkurari.

Ebazpenak: R-14-170/R-14-189 (zerrenda osoa aurkezten da).

**HIRUGARREN PUNTUA:  
ITSASOKO OSTATUKO ERABILERA KONTRATUA ESLEITZEKO  
BALDINTZA ADMINISTRATIBO ZEHATZEN PLEGUA  
ONARTZEKO PROPOSAMENA.**

**IKUSIRIK:**

Itsasoko Ostatuaren emakida-kontratuaren iraunaldia amaitutzat eman dela, beraz ustiatzen duen Pepi Urretabizkaia andereak horrela eskatuta.

Arduradun berria aukeratzeko dagokion administrazio-prozedura ireki behar dela.

Azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateginaean (SPKLTB) xedatutakoaren arabera, kontratazio administratibo hau publizitate gabeko negoziatu prozeduraz esleitu daitekela, eta eskaintzak aurkeztu ahal izango dituztela Ezkio-Itsasoko Udalarengandik gonbidapena jasotzen dituztenek (gutxienez hiru gonbidapen egin behar dira).

.....//.....

**4-E-14-05: EZOHICO UDAL OSOKO BILKURA**

## **KONTUAN HARTUTA:**

Gonbidapenak nori egin erabakitzeko irizpide hauek kontuan izan direla:

- Ostalaritza arloan esperientzia edukitzea.
- Baldintza Zehatzen Pleguan jasotako gainerako baldintza guztiak betetzea.

Irizpide hauek kontuan izanda prestatutako Baldintza Zehatzen Plegua aurkeztu da, eta berriro gaia aztertu ondoren Udal Osoko Bilkurak aho batez,

## **ERABAKI DU:**

### **LEHENENGOA:**

Itsasoko Ostatuaren emakida-kontratuaren iraunaldia 2014eko urriaren 1eko datarekin amaitutzat ematea.

### **BIGARRENA:**

Itsasoko Ostatuko erabilera kontratua esleitzeko Baldintza Administratibo Zehatzen Plegua onartzea, eskaintzak aurkezteko epea 2014eko urriaren 27ko 13:00ak arte jarriz.

### **HIRUGARRENA:**

Esleipen prozeduran parte hartzeko 3 hauei gonbidapena igortzea. Dena den, prozedura hau prentsan ere argitaratuko da, eta interesatua dagoen edonork hala eskatuta, gonbidapena ere luzatuko zaio, beti ere urriaren 27ko data hori errespetatuz beren eskaitzak aurkezteko:

LABEKOA JATETXEA (Mairama Restauracion S. Coop.).  
C.I.F.: 20871711  
Pº INDUSTRIAL OJARBIDE  
20709.-EZKIO-ITSASO.

### **JUAN MANUEL NEGREDO ZALAKAIN**

20700.-ZUMARRAGA.

.....//.....

***5-E-14-05: EZOHICO UDAL OSOKO BILKURA***

## **ERIKA IPARRAGIRRE GAZTAÑAGA**

LEGORRETA

### **LAUGARREN PUNTUA:**

### **EZKIOKO OSTATUAREN KUDEATZAILEEN ESKAERAK ETA UDALAREN JOKAERA IZAN BEHAR DUENAREN FINKAPENA.**

Alkate jaunak hartzen du hitza, adieraziz aste hontan deitu ziola Ezkioko Ostatua kudeatzen duen arduradunak, esanez frigorifiko bat hondatu dela. Teknikoa ikustera joan da eta esan die motorra hondatu zaiola, bestela makina egoera onean dela. Motorra aldatzeko aurrekontua 700 € ingurukoa da. Erantzun zitzaion, Udalak eta kudeatzaileek duten kontratuaren 8.3 puntuan esaten denez,

8.3.- Emakida gai diren eraikinak eta lokalak eta bertako instalazioak funtzionamendu erabilera eta artapen egoera onean mantentzea, eta bere kontura izango dira horien konponketa-gastuak, eta abar, beraien kostua eta zergatia edozein dela eta. Bere kontura izango da baita, emakida aldiari hondatzen den material suntsigarria berriro jartzea (Ezkioko-Itsasoko Udalaren kontura izango dira edozein inbertsio berri edo erosi beharreko makinari berria, horregatik horrelako zerbait erosi baino lehen Udalaren baimena beharko da).

Beraz, udalari makina berria erostea legokioke, baina motorra aldatze edo makina konpontzea esleipendunari. Gaineratzen du makina berri bat erostea 3.000 €ko inbertsioa egitea suposatuko lukeela.

Gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoarekin zera

### **ADOSTU da:**

**LEHENA:** Ezkioko Ostatuko kudeatzaileek daramaten kudeaketa egokia da udalaren eritziz. Hori horrela, kontratuaren luzapena egiteko aldeko erabakia hartzen dute, beste bi urterako, 2014ko azaroaren 1etik 2016ko urriaren 31 arte.

**BIGARRENA:** Ezkioko ostatuko kudeatzaileek hilero ordaintzen duten errenta 400,00 €ra (BEZa barne) jeistea, ikusirik ostalaritza munduak krisiagatik pairatzen ari den egoera.

**HIRUGARRENA:** Esleipendunari jakinaraztea udalarekin sinatuta duen kontratuaren arabera, bere kontura direla funtzionamendu erabileragatik sor daitezken konponketa gastuak, beraien zergatia eta kostua edozein dela eta. Dena den, behin makina konponduta

.....//.....

**6-E-14-05: EZOHIKO UDAL OSOKO BILKURA**

(motorra aldatuta) berriro hondatuko balitz, udalak makina berria erosteko inbertsioa egiteko konpromezua adierazten du.

**LAUGARRENA:** Erabaki honen berri interesdunari ematea.

**BOSTGARREN PUNTUA:  
GALDERA ERREGUAK**

Ez dago.

Beterik deialdiaren helburua, 17:55ak direnean, eta aztertzeko gai gehiagorik ez dagoenez, alkate jaunak Udal Osoko Bilkura bukatutzat ematen du. Nik, idazkari bezala, akta hau idazten dut.

Ezkio-Itsaso, 2014ko urriaren 3a

O.E.  
ALKATEA

.....//.....

**7-E-14-05: EZOHICO UDAL OSOKO BILKURA**